



FESTARA ATERATZEKO NEGOZIAKETAN



Ainhoa Sarasua Maritxalar
eta Lur Renteria

Doinua: Erreguetan ari nintzela

Neurria: Lau puntuko handia (ip) / Zortziko handia (hg)

Festara atera nahi duen nerabearen eta gurasoaren arteko elkarrizketa.

1 (Nerabea)

Urte osoan jasana dugu egin beharraren **zama** kolegioan eta etxean untsa bete baitut **lana** eskakizun bat egin nahiean hurbildu naiz **zuengana** Herri Urratsen festa egiten utzi aita eta **ama**.

2 (Burasoa)

Gazteak mozkor eta bakarrik egoten dira **pentzean** eta giroa ilun bihurtzen da tenore bat **heltzean** kontzertuetan dantza ezazu baina beti gure **ertzean** nork artatua izan dezazun zerbait txarra **gertatzean**.

3 (Nerabea)

Ia handitu naiz eta zuekin ez naiz senditzen **gustura** eta biziki gustuko ditut liranja jusa ta **ura** ta ezbehar bat gertatzen bada ez zaitezte **arrangura** lagunartean elgar zaintzeko hartuko dugu **ardura**.

4 (Burasoa)

Azken aldian ingurura so guzia ageri da **beltz** ta besta beste manera batez pentsatzea ez da **erres** baina erakutsi duzu duzula nola hartu ta eman **babes** goza ezazu Herri Urratsen zutaz harro gira **Amets!**

